

Egoeraren Azterketa




Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

- ✓ **Europaraino ekonomia eta langabezi hazkunde handiagoak**
- ✓ **Suntsituriko 34.000 lanpostu 2008an**
- ✓ **Langabeen %34,3ak ez du inongo langabezi saririk**
- ✓ **2008an sinaturiko kontratuen %90,9a behin-behinekoa izan da**
- ✓ **Errentaren banaketan partehartzea berreskuratzeko, KPIa baino soldata igoera altuagoak**

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	ERREFERENTZIA TARTEA		12 HILE LEHEN.	2007 BUKAERA
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA				
JARDUERA TASA (%)	2008ko IV. HIRUHILEKOA	74,0	73,5	73,5
JARDUERA TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko III. HIRUHILEKOA	71,3	70,9	70,6
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	2008ko IV. HIRUHILEKOA	1.248.300	1.282.300	1.282.300
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	2008ko IV. HIRUHILEKOA	1.006.000	1.035.900	1.035.900
ALDI BATERAKO TASA (%)	2008ko IV. HIRUHILEKOA	25,4	28,2	28,2
ALDI BATERAKO TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko III. HIRUHILEKOA	14,3	14,8	14,4
BIZTANLERIA LANGABETUA	2008ko IV. HIRUHILEKOA	113.700	73.700	73.700
LANGABEZI TASA (%)	2008ko IV. HIRUHILEKOA	8,3	5,4	5,4
LANGABEZI TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko III. HIRUHILEKOA	6,9	7,0	6,9
GAZTEEN LANGABEZI-TASA (%)	2008ko IV. HIRUHILEKOA	22,6	15,2	15,2
GAZTEEN LANGABEZI-TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko III. HIRUHILEKOA	15,7	15,4	14,8
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA (%)	2008ko IV. HIRUHILEKOA	9,3	7,0	7,0
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko III. HIRUHILEKOA	7,4	7,7	7,7
SINATURIKO KONTRATUAK	2008ko URTARRILA-ABENDUA	1.061.684	1.121.729	1.121.729
MUGAGABEKO KONTRATUAK	2008ko URTARRILA-ABENDUA	97.006	104.633	104.633
ENPLEGU ERREGULAZIOA				
ONARTURIKO FITXAK	2008ko URTARRILA-AZAROA	510	473	509
ERAGINDAKO LANGILEAK	2008ko URTARRILA-AZAROA	15.330	8.156	8.634
LAN ISTRIPUAK				
ISTRIPUAK GUZTIRA	2008ko URTARRILA-IRAILA	46.657	46.877	128.557
HILDAKOAK	2008ko URTARRILA-IRAILA	77	85	108
ESKAINNTZA ETA ESKARIA				
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (% ALD.)	2008ko URTARRILA-ABENDUA	-3,4	2,8	2,8
BPGa EAEn (% ALD.)	2008ko III. HIRUHILEKOA	1,9	4,0	3,8
BPGa NAFARROAn (% ALD.)	2008ko III. HIRUHILEKOA	1,8	3,8	3,4
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	2008ko III. HIRUHILEKOA	0,7	3,6	3,6
BPGa 27-EUOPAR BATASUNEAN (% ALD.)	2008ko III. HIRUHILEKOA	0,8	2,9	2,5
PREZIOAK				
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (%)	2008ko ABENDUA	1,4	4,2	4,2
KPI 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko ABENDUA	2,2	3,2	3,2
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.				
* Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko pertsonen buruzkoak dira. Bestela adin tartea zehaztuko da.				
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea (NEE), Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística.				
2009/02/05ean eguneraturiko informazioarekin				
112. zbk. Egoeraren Azterketa 2009ko Otsaila				



Aurkibidea

SARRERA	3
EGOERA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN AZTERKETA	4
1. Ekonomiaren hazkunde txikiagoa	4
2. Enpleguaren bilakaera ezin okerragoa	4
3. Kontratazioak behin-behineko izaten jarraitzen du	6
4. Enplegu-erregulazioko espedienteak	7
5. KPIa baino soldata igoera altuagoen alde	9
PUNTAKO GAIAK	11
1. Langabeen %34,3ak ez du inongo langabezi saririk jasotzen	11
2. Ekonomiaren hazkunde altuagoa, langabeziaren hazkunde handiagoa	11

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala

EGOERAREN AZTERKETA

Sarrera

Egoeraren Azterketako zenbaki honetan Hego Euskal Herrian enpleguan 2008an izandako bilakaera aztertuko dugu. Daturik aipagarriena, burutzen ari den enpleguaren suntsiketa dugu, batez ere, behin-behineko enpleguaren erabilerari Ester. Ekonomia aurreko epealdietan baino gutxiago hazten ari da, baina europar inguruan baino gehiago; hala ere, Hego Euskal Herriko langabezi tasa beste herrialdeetan baino nabarmen gehiago hazten ari da.

** Txosten hau 2009ko otsailaren 5ean eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

Gizarte eta ekonomia egoeraren azterketa

1. Ekonomiaren hazkunde txikiagoa

HGaur egungo fase ekonomikoak badu eraginik Hego Euskal Herriko (HEH) ekonomian ere. Horren adierazle nabarmena da Barne Produktu Gordinaren (BPGd) hazkundera izan den geldialdi handia. Gai horri buruz aurkeztutako datuak 2008ko hirugarren hiruhilekokoak dira. Epe horretakoak dira BPGd-ari buruz jasotako azken datuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) BPGd-a %1,9 hazi zen, termino errealetan, 2008ko hirugarren hiruhilekokoan; 12 hilabete lehenago, berriz, %4 hazi zen. Begien bistakoa da aldea. Nafarroan joera berbera da: 2008ko hirugarren hiruhilekokoan %1,8 hazi zen BPGd-a, eta aurreko urtean, berriz, %3,8koa izan zen hazkundera.

BPGd-ak 2007tik aurrera izan duen bilakaera sektoreka aztertzean, nabarmena da beheranzko joera orokorra, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sektorean izan ezik. Alor horietan BPGd-aren hiruhileko aldea %-0,2 eta %2,2 artekoa izan da EAEn, eta Nafarroan, berriz, %0,7 eta %2,9 artekoa, aztertutako epe horretan. Nabarmentzekoa da eraikuntza sektorearen bilakaera: aurreko urteetan hazkunde handia izan zuen sektore horrek, baina 2008ko hirugarren hiruhilekoko balio negatiboetan itxi zuen. Hala, EAEn, hazkundera %4,9 izatetik %-1 izatera igaro da, eta, Nafarroan, %5,6 izatetik %-0,2ra.

Industria sektorea %3,9 hazi zen EAEn 2007ko hirugarren hiruhilekokoan, eta 2008an, epe berean, %1,0 hazi da. Nafarroan %1,8koa izan zen hazkundera 2007ko hirugarren hiruhilekokoan eta, 2008an, epe berean, %1,5koa izan da. Zerbitzuen sektorean ere moteldu egin da hazkundera; izan ere, aztertutako epean, %4,1etik %2,8ra pasa da EAEn, eta %4,6tik %2,6ra Nafarroan.

Ondorengo taulan ikus daitekeenez, Espainiako Estatuan eta 27-EBean gurean baino txikiagoa izan da BPGd-aren urtearteko hazkundera 2008ko hirugarren hiruhilekokoan: %0,7koa Espainiako Estatuan eta %0,8koa 27-EBean. Hain zuzen, HEHko BPGd-a gehiago hazi da 2007ko eta 2008ko hiruhileko guzti-guztietan.

BPGd-aren URTEARTEKO GEHIKUNTZA (% ALD.), EAE, NAFARROA, ESPAINIAR E., 27-EB (2007-2008)

	2007				2008		
	I	II	III	IV	I	II	III
Nekazaritza	9,8	15,5	-0,2	14,9	5,3	-0,2	2,2
Industria	5,3	4,8	3,9	2,2	1,8	1,4	1,0
Eraikuntza	5,3	5,0	4,9	3,3	2,4	1,1	-1,0
Zerbitzuak	4,2	4,0	4,1	4,6	3,6	3,4	2,8
BPGd-a EAE	4,5	4,3	4,0	3,8	3,1	2,6	1,9
Nekazaritza	0,5	0,6	0,7	0,9	1,1	2,3	2,9
Industria	3,2	2,4	1,8	0,8	1,1	1,5	1,5
Eraikuntza	5,6	5,7	5,6	5,2	4,3	2,4	-0,2
Zerbitzuak	4,6	4,7	4,6	4,3	3,9	3,1	2,6
BPGd-a NAF.	4,2	4,0	3,8	3,4	3,0	2,5	1,8
BPGd-a ESP. E.	3,9	3,7	3,6	3,6	2,8	2,0	0,7
BPGd-a 27-EB	3,3	2,8	2,9	2,5	2,3	1,7	0,8

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Eustat, EHN, Eurostat

2. Enpleguaren bilakaera ezin okerragoa

2008an 34.000 enplegu galdu dira

HEHan, enpleguaren bilakaerak ezaugarri nagusi bat izan du 2008ko ekitaldi osoan: lanpostu galera etenik gabea. Zehatz-mehatz, 34.000 enplegu galdu, deuseztatu dira; eta, hala, **biztanleria landuna** nabarmen jaitsi da: 1.248.300 pertsona ari dira egun lanean. Gizonezko landunak 701.400 izan dira 2008an (2007ko laugarren hiruhilekoko baino 30.000 gutxiago), eta emakumezko landunak, berriz, 546.900 izan dira (4.000 gutxiago). Horrenbestez, galdutako lanpostu gehienak gizonezkoen artean galdu dira (%88). Horrek murriztu egin du biztanleria landunean gizonezkoen eta emakumezkoen artean dagoen tartea. Nolanahi ere, enpleguaren %56,2 gizonezkoek izaten jarraitzen dute eta %43,8 emakumezkoek.

Sektorez sektore, 802.200 pertsona zerbitzuen sektorean aritu dira lanean (landun guztien %64,3), 307.000 industrian (%24,6), 111.600 eraikuntzan (%8,9), eta 27.500 nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan (%2,2). Bilakaerari dagokionez, sektore guztietan galdu dira lanpostuak: eraikuntza izan da kaltetuena (19.800 lanpostu galdu dira), zerbitzuen sektorea hurrena (13.900), industria gero (200) eta nekazari-



tza, abeltzaintza eta arrantza azkena (100 lanpostu gutxiago).

2007aren amaieran baino soldatapeko 29.900 langile gutxiago

Soldatapeko biztanleriaren bilakaerari bakaerri erreparatzen badiogu, datua izugarria da: soldatapeko 29.900 lanpostu galdu dira 2007ko laugarren hiruhilekoaz geroztik, eta, horrenbestez, soldatapeko langileak 1.006.000 ziren iragan abenduan. Sexuaren arabera, soldatapeko gizonetzkoak 541.500 izan dira (2007ko laugarren hiruhilekoan baino 20.000 gutxiago) eta emakumezkoak, berriz, 464.500 (9.900 gutxiago). Soldatapeko langileen kasuan, lanpostuen galera aldetik ez da hainbesteko alderik egon sexuen artean: hala, galdutako enpleguen %66,9 gizonetzaenak izan dira eta %33,1 emakumezkoenak. Soldatapeko enpleguaren banaketa osoan ere parekotasun eta oreka handiagoa dago sexuen artean: gizonetzkoak dira soldatapekoen artean %53,8 eta emakumezkoak %46,2.

Sektorez sektore, urtearen amaieran soldatapeko 649.600 langile zerbitzuen sektorean ari ziren lanean (soldatapeko langile guztien %64,6), 268.000 industrian (%26,6), 78.200 eraikuntzan (%7,8) eta 10.400 nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan (%1). Zerbitzuen sektorean galdu da soldatapeko enplegu gehien (19.400), eta hurrena eraikuntzan (12.700). Biztanleria landunean oro har, ikusi dugu arestian, sektore guztietan galdu dira lanpostuak; soldatapeko biztanleria, aldiz, hazi egin da zenbait alorretan: hala, nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan 1.500 lagun gehiago batu dira ekitaldi osoan eta industrian 700 lagun.

Biztanleria landuna, beraz, 34.000 lagunetan jaitsi bada eta soldatapekoa 29.900 lagunetan, horrek esan nahi du soldatapekoak ez diren 4.100 enplegu galdu direla (langile autonomoak, familia-laguntzakoak, etab.).

Lana izan duten biztanleriatik %80,6 soldatapekoak izan dira. Soldatapekoen ehuneko horren barruan gehiago izan dira emakumezkoak (%84,9) gizonetzkoak baino (%77,2).

Kontratu-motaren aldetik, 2008aren amaieran 255.500 pertsona zeuden soldatapean lanean behin-behineko kontratuarekin, urtebete lehe-

nago baino 36.200 gutxiago. Horrek argi erakusten du behin-behineko kontratua duten langileen lepotik doitu dela enplegua. Lanpostu galera gehienak kontratu-mota hori dutenen artean eman direla, alegia. Izan ere, behin-behineko kontratua dutenak erabat babes gabe geratzen dira enpresak kontratu horiek ez berritzea erabakitzen duelarik.

BIZTANLERIA AKTIBOAREN BILAKAERA. 2007-KO IV. HIRUHIL. 2008-KO IV. HIRUHIL.

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
BEHIN-BEHIN.	-20.600	-15.600	-36.200
FINKOAK	600	5.700	6.300
SOLDATAPEKOAK	-20.000	-9.900	-29.900
LANDUNAK	-30.000	-4.000	-34.000
LANGABEAK	25.000	15.000	40.000
AKTIBOAK	-5.000	11.000	6.000

Iturria: BAI (Biztanleria Aktiboaren Inkesta)

Behin-behinekotasun tasa %25,4koa zen 2008ko laugarren hiruhilekoan. Tasa hori handiagoa zen emakumeen artean (%30,5) gizonetzaen artean baino (%21). Behin-behinekotasun tasa 2,8 puntu jaitsi da 2007ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta (2,9 puntu soldatapeko gizonetzaen artean eta 2,7 emakumezkoen artean), baina murrizketa hori behin-behineko kontratuak dituzten langileak kaleratuzetik etorri da, eta ez kontratu horiek mugagabe edo finko bihurtuzetik.


Behin-behinekotasunaren bilakaera hori dela eta, Europako parametroetatik gertuago gaude aldagai horretan. Nolanahi ere, HEHan behin-behinekotasunak bikoiztu egiten du 27-EBko batez bestekoa (%14,3). Gizonetzaen behin-behinekotasun tasa %13,6koa izan da 27-EBean (HEHan baino 7,4 puntu txikiagoa) eta emakumezkoena %15koa (15,5 puntu txikiagoa).

Begien bistakoa da behin-behinekotasunean zenbateko aldea dagoen Europa eta gure artean. Alde hori, gainera, emakumezkoen kolektiboan da nabarmenena. Hala, gizonetzaen eta emakumezkoen behin-behinekotasun tasaren arteko aldea 9,5 puntukoa da HEHan eta 27-EBean, aldiz, 1,4 puntukoa baino ez.

Gazteen behin-behinekotasun tasa %68,4koa izan da (2007ko laugarren hiruhilekoan baino

0,4 puntu handiagoa) eta 25 eta 34 urte arteko kolektiboarena %32,8koa (2,5 puntu txikiagoa).

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASAK (%). 27-EB (2008ko III. HIRUHIL.) ETA HEH (2008ko IV. HIRUHIL.)



Iturriak: EIN, Eurostat

40.000 pertsona langabe gehiago

Langabezia ere hazi egin da 2008an: 2007ko laugarren hiruhilekoan baino 40.000 pertsona gehiago geratu dira 2008an lanik gabe. Horrenbestez, 113.700 lagunek osatzen dute langabeen biztanleria. Oso datu negatiboa da. Gizonezko langabeak 57.300 dira (2007ko laugarren hiruhilekoan baino 25.000 gehiago), eta emakumezko langabeak, berriz, 56.200 (15.000 gehiago). Horrenbestez, biztanleria langabearen igoerarik handiena gizonezkoen artean eman da (%62,5) eta emakumezkoena %37,5koa izan da. Langabeen ehunekoetan parekotasun handiagoa dago sexuen artean: 2008an langabeen artean %50,5 gizonezkoak izan dira eta %49,5 emakumezkoak. Urte askoan lehen aldiz gizonezko gehiago dago langabezian emakumezkoak baino.

Langabezia-tasa 2008aren amaieran %8,3koa zen, 2007ko laugarren hiruhilekoan baino 2,9 puntu handiagoa. Sexuen arabera, gizonezkoen langabezia-tasa %7,6koa izan da (3,4 puntuko igoera ekitaldian) eta emakumezkoena %9,3koa (hamabi hilabete lehenago baino 2,3 puntu handiagoa).

Gazteen langabezia-tasa %22,6koa izan da (7,4 puntu handiagoa), eta 25 eta 34 urte arteko

kolektiboarena %10,4koa (4,5 puntu handiagoa).

Beraz, 40.000 langabe gehiago zenbatu badira 2008an, eta biztanleria landuna 34.000 murriztu bada, 6.000 lagun gehiagok osatzen dute **biztanleria aktiboa** (lana baduten edo modu aktiboan bila dabiltzan biztanleek osatzen dute biztanleria aktiboa). Aipatzekoa da gizonezko aktiboaren artean 5.000 laguneko murrizketa izan dela. Jaitsiera hori gertatu ez balitz, 5.000 gizonezko gehiago egongo ziratekeen langabetuen artean.


Biztanleriaren %74k lana izan du edo modu aktiboan bilatu du; puntu erdi hazi da ehuneko hori 2007ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Gizonezkoen **jarduera-tasa** %81,9koa izan da, eta emakumezkoena %66,1koa. Hala, jarduera-tasa handiagoa da HEHan, 27-EBko batez bestekoa baino. 27 estatu kideek osatutako Europar Batasunean %71,3koa da jarduera-tasa orokorra, %78,4koa gizonezkoena eta %64,3koa emakumezkoena. (Datu horiek 2008ko hirugarren hiruhilekokoak dira, epe horretakoak baitira eskueran ditugun Europako azken informazioak).

Enplegu-datuen erabilpen alderdikoia Eusko Jaurlaritzaren aldetik

ELAK 2006an utzi zion BJA (Biztanleria Jardueraren Arabera) erabiltzeari. Une hartan azpimarratu genuen Eustatek enpleguarekin lotuta argitaratutako datuak ez zetozeela bat errealitatearekin; izan ere, langabeziaren eta behin-behinekotasunaren aldetik datu eta bilakaera koherentziarik gabeak erakusten zituzten. Adibidez, Eustatek langabezian dagoen biztanleriari buruz ematen duen datua askoz apalagoa da langabeziako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua baino. Hala ere, Eustatek ildo berari eutsi dio eta Eusko Jaurlaritza bere mesedetan ari da erabiltzen informazio hori; inork sinesten ez duen informazio hori.

3. Kontratazioak behin-behinekoa izaten jarraitzen du

2008an 1.061.684 lan-kontratu erregistratu dira, 2007an baino 60.045 gutxiago. Ohikoa denez,



kontratu horietatik gehien-gehienak **behin-behinekoak** izan dira, 964.678 zehatz-mehatz; hau da, kontratu guztien **%90,9**. Ehuneko hori 2007koa baino zertxobait altuagoa da; aurreko urtean kontratu guztien %90,7 izan ziren behin-behinekoak.

Ekoizpen beharretarako aldi baterako kontratuak izan dira kontratu ohikoenak (%37,6); hurrena obra- edo zerbitzu-kontratuak (%30,8) eta bitarteko lan-kontratuak (%19,8). Mugagabe bihurtutako kontratuak datoz gero (%3,9) eta hurrena ohiko kontratu finkoak (%3,9) eta kontratazio mugagabea sustatzeko kontratu mugagabeak (%1,2). Gainerako kontratuak ez dira iritsi kontratazio osoaren %1era.

Genero aldetik, badira *aldeak*. Hasteko, ehunekoan, gizonezkoen artean kontratu finkoak gehiago izan dira (%10,1) kopuru osoaren aldean (%9,1), eta, batez ere, emakumeen aldean (%8,3). Hain zuzen, nahiz eta emakumeen artean kontratu-kopurua handiagoa izan den (555.042 kontratu emakumeei eta 506.573 gizonezkoiei), kontratu finko gutxiago egin zaizkie emakumeei (46.063 emakumezkoiei eta 50.943 gizonezkoiei).

Gizonezkoiei dagokienez ere kontratu ohikoenak ekoizpen-beharretarako aldi baterako kontratuak izan dira (%39); hurrena obra- edo zerbitzu-kontratuak (%38,3); askoz gutxiago izan dira, berriz, bitarteko lan-kontratuak (%9,1). Gizonezkoen kasuan, mugagabe bihurtutako kontratuak %4,6 izan dira; ohiko kontratu finkoak %4,3, eta kontratazio mugagabea sustatzeko kontratu mugagabeak, azkenik, %1,2.

Emakumezkoen kasuan ere kontratu ohikoenak ekoizpen beharretarako aldi baterako kontratuak izan dira (%36,4), baina kasu honetan, kopuru aldetik hurrengoak bitarteko lan-kontratuak izan dira (%29,6). Horrek genero aldetik halako bazterketa erakusten du; izan ere, kontratu-mota hori dutenek –emakumezkoak dira asko eta asko– ez dute inolako kalte-ordainik jasotzen kaleratzen dituztelarik (aldiz, behin-behineko gainerako kontratuetan 8 egun izaten dira lan egindako urte bakoitzeko eta 33/45 egun kontratu finkoetan). Kopuru aldetik hurrengoak, obra- edo zerbitzu-kontratuak dira (%24); ohiko kontratu finkoak (%3,6) eta mugagabe bihurtutako kontratuak (%3,4) datoz

gero, eta kontratazio mugagabea sustatzeko kontratu mugagabeak ondoren (%1,3).

KONTRATUAK, MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 2008ko URTARRILA-ABENDUA

	GIZONEZ.	EMAKUM.	GUZTIRA
EKOIZPEN BEH.			
ALDI BATEKOAK	197.711	201.890	399.601
OBRA EDO			
ZERBITZUKOAK	194.191	133.220	327.411
BITARTEKOAK	45.879	164.381	210.260
PRAKTIKA-KONTRATUAK	4.217	3.303	7.520
TXANDA-KONTRATUAK	4.830	1.861	6.691
ERRETRO PARTZ. KONT.	4.702	1.154	5.856
BESTELAKO KONTRATUAK	1.934	1.921	3.855
PRESTAK.-KONTRATUAK	1.471	877	2.348
GAITASUN URRIK.			
ALDI BAT. KONT.	694	378	1.072
64 URTEREKIN			
JUBIL. ORDEZ.-KONT.	49	15	64
ALDI BATERAKOAK,			
GUZTIRA	455.678	509.000	964.678
MUGAGABE			
BIHURTUTAKOAK	23.092	18.785	41.877
MUGAGABE			
ARRUNTAK	21.660	20.116	41.776
KONT. MUGAG.			
SUSTATZEKO MUG.	5.905	7.037	12.942
GAITASUN			
URRIKOEN KONTR.	286	125	411
MUGAGABEAK,			
GUZTIRA	50.943	46.063	97.006
GUZTIRA	506.621	555.063	1.061.684

Iturria: INEM

Ez dirudi 2009ak aldaketarik dakarrenik joera honetan, urtarrilean buruturiko 68.309 kontratazioetatik, 61.625 behin-behinekoak izan baitira, hau da, %90,2a. Hala ere, sinaturiko kontratu kopuruak %32,5ko jaitsiera izan du 2008ko urtarrilarekiko (101.214 kontratu sinatu ziren hile horretan).

4. Enplegu-erregulazioko espedienteak

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak 2008 ekitaldi osoan baimendutako espedienteen informazioa ezagutzera eman dute bi administrazio horiek.

Eusko Jaurlaritzak 2008an baimendutakoak

2008an 528 EEE aurkeztu zaizkio **Eusko Jaurlaritzari**, eta horietatik 496 onartu dira eta 11 ez (21 kendu egin dira gerora). Baimendutako 496 espedienteetatik 455 (%91,73) sindikatuen adostasunarekin baimendu dira, eta 41 (%8,26) sindikatuen adostasunik gabe onartu ditu Jaurlaritzak.

Akordiorik gabe onarturiko espedienteak eta onartu gabekoak batuz (hauek ere ez baitute akordiorik izan), akordiorik gabeko 52 espediente aurkeztu direla ikus dezakegu. Era honetara, akordiorik gabe aurkezturiko 5 espedienteetatik 4 onartu ditu Eusko Jaurlaritzak.

Beraz, 2008an areagotu egin dira baimendutako erregulazio espedienteak. 2007an baino 214 gehiago baimendu zituen iaz Jaurlaritzak. 2007an 282 onartu ziren, eta igaro berri den urtean, gogora dezagun, 496.

Ordainketa eteteko espedienteen eragina 11.216 pertsonak jasan dute; lanaldia murrizteko espedienteen eragina 108 lagunek, eta kontratua hutsaltzeko espedienteen eragina 1.470 langilek. Horrenbestez, kaltetutako pertsonak, guztira, 12.794 izan dira (10.396 gizonetzko eta 2.398 emakumezko). Hala, 2007an baino 7.979 langile gehiagok jasan dituzte espediente horien eraginak. 2007an 4.815 langilek jasan zituzten EEE horien ondorioak.

Sektorez sektore, batez ere industriak jasan ditu EEE-en ondorioak: industriako 10.835 langile egon dira fitxa horien eraginpean (%84,69). Industriaren ondoren kaltetuenak hauek izan dira: zerbitzuen sektorea, 1.569 lagunekin (%12,26); eraikuntza, 378 pertsonekin (%2,95); eta nekazaritza, 12 pertsonekin (%0,09).

Nafarroako Gobernuak 2008an onartutako espedienteak

Nafarroako Gobernuak, berriz, 178 erregulazio espediente onartu ditu 2008an, eta 5 espediente ez ditu baimendu. Baimendutako artean 153 hitzartutakoak izan dira (%86); horrenbestez, Nafarroako Gobernuak hitzartu gabeko 25 fitxa baimendu ditu (%14).

Datuak horrela, Nafarroako Gobernuak 2007an baino 116 espediente gehiago onartu zituen

iaz. 2007an 62 izan ziren baimendutako erregulazio espedienteak.

Kontratua hutsaltzeko espedienteen eragina 910 pertsonak jasan dute eta ordainketa eteteko espedienteen eragina 7.715 langilek. Beraz, guztira, 8.625 lagunek jasan dute espediente horien eragina. 2007an baino 5.545 lagun gehiagok.

HEHan 2008ko azarora arte baimendutako espedienteen kopuru osoa

Gasteizko eta Iruñeko Gobernuek baimendutakoez gain, badira EEE gehiago ere. Hala, HEHko zenbait enpresetan Espainiako Gobernuak baimendu ditu erregulazio espedienteak. Beraz, erregulazio espedienteen eta eragindako pertsonen **kopuru osoa** handiagoa da Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak aurkeztutakoa baino.

Espainiako Gobernuak baimendutako espedienteak kontuan hartuta, 2008ko azarora arte 510 EEE onartu dira HEHan. Horrenbestez, aurreko urtean epe berean baino 37 gehiago izan dira. 2007an, azarora arte, 473 espediente baimendu ziren HEHan. Aintzat hartu behar da informazio horretan abenduko espedienteak falta direla, eta asko izan ziren hilabete horretan.


Guztira, 15.330 langilek jasan dute espediente horien eragina, 2007an baino 7.174 lagun gehiagok (2007an 8.156 langile izan ziren eragindakoak). 2.578 pertsonak jasan zuten kontratua eteteko espedienteen eragina; 12.701 lagunek ordainketak eteteko neurrien eragina eta 51 lagunek lanaldia murrizteko neurrien eragina.

ERREGULAZIO ESPEDIENTEEN ERAGINA JASAN DUTEN PERTSONAK. HEH, 2007-2008 URTARRILA-AZAROA

	KONTRATU AMAIERA	ORDAINKETA ETENA	LANALDI MURRIZKETA	GUZTIRA
2007	2.411	5.729	16	8.156
2008	2.578	12.701	51	15.330

Iturria: MTAS

HEHan baimendutako espedienteen datuetan ikusten da halako gorakada espedienteen eragina jasan duten pertsonen kopuruan. Gainera, espediente gehienak 2008ko azken hilabetetan



baimendutakoak dira. Horrek, beraz, iragarri dezake 2009an EEE kopuruak gora egin deza-keela.

Nolanahi ere, enpleguaren bilakaera aztertu dugunean aipatu bezala, EEEak ez dira izaten ari lanpostuak galtzeko arrazoi nagusia, behin-behineko enpleguaren suntsiketa baizik.

Bestalde, enpresa asko plantilak egokitzeko aitzakia edo mehatxu moduan ari dira erabiltzen EEEak, baita langileen baldintzak –soldatak izoztea, malgutasuna, etab.– negoziatzeko xantxia moduan ere. Areago: enpresa batzuk EEEak aurkezten ari dira, eta, aldi berean, irabaziak lortzen. Izan ere, enpresa askok langileen baldintza kaskarren lepotik jarraitu nahi dute negozioa egiten, baita ekonomiaren moteltze garaietan ere. Ekonomian BPGd-aren hazkunde nabarmenak izan diren aldietan, irabaziak patronalaren patrikara joan dira, eta orain, ekonomia gutxiago hazten ari den garaiotan, patronalak nahi duena da langileek ordaintzea ondorioak.

Administrazioak sindikatuen adostasunik ez duten EEEak ari dira onartzen. Enpresen aldeko jarrera erakusten du horrek. Gainera, administrazioak irizpide murriztaileak ezarri beharko lituzke erregulazio espedienteak onartzerakoan, aurkezturiko neurrien proportzionaltasun edo bideragarritasuna baloratuz, eta legedia bere osotasunean betetzea eskatuz. Alabaina, administrazioak erabateko malgutasunez ari dira aplikatzen espedienteak erregulatzen dituen araudia, enpresen alde betiere.

Gainera, administrazioek ez dute neurri eraginkorrik planteatzen langabezian geratzen diren herritarrentzat, eta prekarietateari aurre egin gabe jarraitzen dute. Eta esan dugu arestian: prekarietatatea da enplegua suntsitzeko bide nagusia.

Eusko Jaurlaritzak, gainera, ezkutatu egiten du EEE-en inguruko informazioa, eta sindikatuek eskatu arren, ez du informazio hori ematen. Orobat, informazio horren erabilpen alderdikoia egiten du, egoki iruditzen zaion unean eta moduan egiten baitu publiko. Hori guztia salatzekoa eta baztertzekoa da.


5. KPIa baino soldata igoera altuagoen alde

Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI) %1,4 igo da 2008an. Urteko hilabete gehienetan prezioek izandako gorakada askoz handiagoa izan da bukaerako KPIa baino. Zehazki, %5,3ko mailara iritsi da uztailean.

Hala ere, prezioen hazkunde handiagoa izan da elikagai edo alkoholik gabeko edari (%2,4) edota etxebizitza (%5,9) bezalako oinarrizko ondasunetan. Gainera, erregai edo gasaren prezioa jaitsi bada ere, oinarrizko zerbitzu batzuen prezioak dezente gehiago igoko dira 2009an: argindarra esate baterako (%3,5), ura (%2tik gora) edo garraio publikoa.

Energi produktuek %7,2ko jaitsiera izan dute eta horrek eragin du KPIaren urteko bilakaera ohikoa baino txikiagoa izatea.

KPIaren URTEARTEKO HAZKUNDEAK (%). ESPAINIAR ESTATUA ETA 27-EB, 2008



Iturria: EIN

KPIaren bilakaera antzekoa izan da europar inguruan 2008an zehar, nahiz eta izandako indizeak baxuagoak izan diren. Era honetara, 27-EBeko KPIak %2,2ko urtearteko hazkundearekin itxi du ekitaldia. Baina espainiar Estatuan bezala, ekitaldiaren gehiengoan zehar, hazkunde handiagoa izan da, urtarrileko %3,4tik azaroko %2,8aren bitartean kokatuz, eta punturik altuenera uztailean iritsiz, % 4,4ra hain zuzen.

2008an KPIak izandako bilakaerak, eta ekitaldiaren gehiengoan hazkunde urte bukaerako baino nabarmen handiagoa izateak, eros ahal-


menaren galera erreala dakar, eta honek diru sarrera baxuagoko kolektiboak kaltetzen ditu bereziki. Soldata berriskupenak KPIa oinarritzat hartuz kalkulatzen dira batik bat, eta beraz, ez dituzte aldagaiok kontutan izango.

Hazkunde ekonomikoaren garaian, lan-errentei aberastasunean dagokien pisuak beheraka egin du nabarmen. Egoera ekonomiko berriak ekarri duen moteltzea dela eta, behin eta berriro sinestarazi nahi digute langileak garela ondorioak ordaindu behar ditugunak. Honela, malgutasuna, behin behinekotasuna eta soldatakur murrizteko neurriak planteatu eta aplikatzen ari dira.


Bizitza duin bat aurrera eraman ahal izateko moduko lan eta soldata duinak aldarrikatzen ditu ELAK, baita egoera ekonomiko honetan ere. Haatik, soldatek aurreko urteko KPIa baino hazkunde handiagoa beharko lukete, beti ere azken urteotan lan-errentek aberastasunaren banaketan izandako galera errekuperatze aldera. Abagune berri honi aurre egiteko lana eta aberastasuna hobeto banatu behar dira.

Bestalde, eta euriborraren bilakaerari dagokionez (hipotekak kalkulatzeko adierazlerik erabiliena) 2008ko ekitaldiaren bukaeran nabarmen jaitsi dela aipatu beharra dago. Zehazki, urtarrilean euriborraren tasa %4,5koa zen, abenduko %3,4arekin alderatuz (baliorik altuena uztailekoa izan zen, %5,4a hain zuzen). Ikustear dago ekintza hau zein neurritan nabaritutako den finantza-erakundeek ezartzen dituzten interes tipoetan.

EURIBORRAREN TASA (%). BILAKAERA, 2008



Iturria: Eurostat



1

Langabeen %34,3ak ez du inongo langabezi saririk jasotzen


Berebiziko garrantzia dauka botere publikoek behar sozialei erantzun egoki bat emateak. Prestazio, subsidio eta laguntza sozialak benetako arazoari aurre egingo ez badiote ere, bizi-raupenerako ezinbesteko laguntza izan daitezke behar dituenarentzat.

Baina garai txarretan handiagotzen da hauen garrantzia. Eta hau da gaur egungo egoera. Gero eta langabetu gehiago dagoen garaian, eta gero eta diru sarrera gabeko jende gehiago dagoen garaian, administrazio publikoak gizar-teari eman beharreko babesaren zama handitzen da.

INEM-en 133.593 pertsona erregistratu ziren 2008 abenduan langabetu bezala, eta hauetatik 87.793k soilik izan dute langabezi saria. Hau da, langabetuen %34,3ak ez du langabezi saririk jasotzen.

Langabezi saria jaso zutenetatik, 64.722 pertsona izan ziren kotizaziopeko langabezi saria eskuratu zutenak, langabetuen %48,4a. Gai-nontzeko 23.061 pertsonak (langabezian inskribaturiko %17,3ak), kotizazio gabeko langabezi saria jaso zuten (langabezia subsidioa edota gizarteratze errenta aktiboa), oso txikiak diren diru sarrerak, eta bizitza duin eta autonomo bat eramanez ahal izatea, utopia mailan uzten dutenak.

LANGABEZIA SARIA JASOTZEN DUEN
BIZTANLERIA (%). HEH. 2008 ABENDUA



Iturria: INEM

Hala ere, langabezi egoeran dagoen jende asko, inolako langabezia saririk jaso gabe edo oso txikiak diren subsidioak jasotzen ari da. Egoera hau, pairatzen duenarentzat zerbait jasangaitza da, eta benetako zorigaitza gizarte guztiarentzat.

2

Ekonomiaren hazkunde altuagoa, langabeziaren hazkunde handiagoa


Egoeraren azterketan agerian geratuenez, langabezia goraka doa ekonomiaren moteltzearen ondorioz. Zentzu honetan deigarria da konparaketa: 2008an, 27-EBean, ekonomia batez beste HEHan baino gutxiago hazi arren, langabezia-tasa iraunkor mantendu da; aitzitik, hemen, arestian aipatutako gorakada nabarmen hori gertatu da langabezia-tasan. Hau da, krisia HEHko (eta Espainiako Estatuko) enpleguan izaten ari den eragina ez da hainbesteko indarrez ematen ari beste herrialde batzuetan.

Horixe bera gertatu zen aurreko krisialdian ere, 1990eko hamarkadaren hasieran: orduko hartan %25era iritsi zen langabezia-tasa gurean, beste herrialde batzuetan baino askoz ere gorago.

Ondorengo grafikoan horixe ikus daiteke. 27-EBean apenas gorabeherarik gabe mantendu da langabezia-tasa 2007ko laugarren hiruhilekoaz geroztik (0,5 puntu hazi da 2008ko abendura arte). Gauza bera gertatzen da estatu kide gehienetan; Frantziako Estatuan, adibidez. Alabaina, Espainiako Estatuan, 2007ko ekitaldiaren amaieratik hona langabeziak gora egin du etengabe. Gorakada hori are nabarmenagoa izan da 2008ko azken hilabeteetan. HEHan ere, langabezia-tasak gora egin du, batez ere 2008ko azken hiruhilekoan. Zehazki, HEHko langabezi tasa 2007ko 4. hiruhilekoko %5,4tik %6,1era igaro da 2008ko 3. hiruhilekoan, eta %8,3ra 4. hiruhilekoan.

Erkidegoka, EAEko langabezi tasa 2007ko 4. hiruhilekoan %4,3koa izatetik, %8,4ra pasatu 2008ko epealdi berdinean, eta Nafarroakoa, %5,8tik %8,2ra.

LANGABEZIA-TASA (%). 27-EB, ESPAINIAKO E., FRANTZIAKO E. ETA HEH. 2007ko IV. HIRUHIL.- 2008ko IV. HIRUHIL.



Iturriak: BAI, Eurostat

(*) 27-EBaren eta Espainiako Estatuaren informazioa abendukoa da eta Frantziako Estatuarena azarokoa; izan ere, 2008ko laugarren hiruhileko informazio osoa ez dago oraindik eskuragarri Europa mailan.

Ondorengo taulak joera berdina baieztatzeko balio du, hau da, Europar Batasuneko estatuen artean, egoera eta bilakaera oso ezberdineko

estatuak daudela langabezia-tasari dagokionean. Estatu espainiarrak du 27-EBko tasarik altuena (%14,4). Letonia da hurrena (%10,4), Eslovakia (%9,4), edo Estonia (%9,2), ondoren HEH langabezia-tasa legoke (%8,3). Gainontzeko estatu guztiek tasa txikiagoa dute, azpimarragarriak dira Danimarka (%4,5), Austria (%3,9), edo Holanda (%2,7).

Bilakaerari dagokionean, egoerak ere oso ezberdinak dira. Hala ere, langabezia-tasa gehien handitu den estatu espainiarra da (5,7 puntu), hurrena Estonia (5,1), Letonia (4,7). Bestalde, badira langabezia murriztu duten estatuak ere, Polonia kasu (1,7 puntu), Eslovakia (0,9), Alemania (0,7) edo Holanda (0,1).

LANGABEZIA TASA (%). 27-EB, 2007ko ABENDUA-2008ko ABENDUA

	2007ko aben.	2008ko aben.	Diferentzia
Espainiar estatua	8,7	14,4	5,7
Letonia	5,7	10,4	4,7
Eslovakia	10,3	9,4	-0,9
Estonia	4,1	9,2	5,1
HEH	5,4	8,3	2,9
Irlanda	4,7	8,2	3,5
Portugal	7,7	7,9	0,2
27-EB	6,8	7,4	0,6
Alemania	7,9	7,2	-0,7
Belgika	7,1	7,1	0
Suitza	5,9	6,9	1
Polonia	8,2	6,5	-1,7
Finlandia	6,5	6,5	0
Bulgaria	6,1	5,4	-0,7
Luxemburgo	4,1	4,8	0,7
Txekiar Errepublikak	4,7	4,7	0
Danimarka	3,1	4,5	1,4
Austria	3,9	3,9	0
Holanda	2,8	2,7	-0,1

Iturria: Eurostat

Datu hori are kezkarriagoa da Europako Batzordearen aurreikuspenen argitan: 2009ko ekitaldian Espainiako Estatuan langabezia-tasa %19koa izango dela iragarri du Batzordeak eta Batasunean, berriz, %8,75ekoa.

HEHan eta Espainiako Estatuan langabezia-tasaren gorakada handi horretan zerikusi nabarmena du gure lan-sistemak; izan ere sistema hori behin-behinekotasunean eta malgutasunean oinarritzen da. Ekonomia hazi den garaietan, enplegua sortu da, baina behin-behinekoko, eta,



hain zuzen, behin-behinekotasun poltsa hori erabiltzen da egoera ekonomiko zailagoetan –gaur egungoan, esaterako– enplegu aldetik beharrezko doikuntzak egiteko. Horrela deuseztatzen dira enplegu gehienak, behin-behinekoko lan-poltsa erraldoi hori baliatuz, oharkabean, Enplegu-Erregulazio Espediente (EEE) guztien gaineratik.

Ezaugarri horrek erakusten du errentaren banaketa kapitalaren alde gertatzen dela, bai ekonomiak hazkunde garai oparoak bizi dituenean, bai moteltze garaiak bizi dituenean. Aberastasunaren banaketa bidezkoagoa lortzeko, beharrezkoa da gaur egungo eredu ekonomikoa aldatzea.



